



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GATIKAKO UDALAREN 2005EKO FISKALIZAZIOKO TXOSTENA DELA ETA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) fiskalizazio txostena egin du, Gatikako Udalaren 2005 ekitaldiko kontuei buruz. Txostena aho batez onartu dute HKEEko osoko bilkurako kideek.

Udalaren fiskalizazioko txostenak biltzen du legezketasun alderdien azterketa, arlo hauek hartuta: aurrekontua, diru sarrerak, zorpetzea, langileria, diru laguntzak eta administrazio kontratazioa; bai eta kontuak aurkezteari lotutako kontabilitate alderdien azterketa ere. Fiskalizazioan sartuta dago, orobat, Gatikako Herri Sustapenak, SA udal enpresa.

Legezketasunaren aldetik, HKEEk iritzi orokorra eman du udalak izan duen jardunari buruz. Adierazi duenez, arrazoizko eran bete da indarrean den araudia. Iritzi orokor horri hainbat salbuespen zehaztu zitzaizkion txostenean bertan.

Aurrekontuaren aldetik, organo fiskalizatzaileak adierazi du araudia ez dela bete, ekainaren 30aren ondoren aurreko ekitaldiko ordainketa kredituak sartu direnean; bai eta eskumena ez duen organoak kreditu transferentzia onartzean ere.

Langileriako araudiari dagokionez, Udalak ez ditu bete publizitate eta berdintasun printzipioak, lan poltsa sortzean. Era berean, ez ditu berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete, 9 langile hautatzean.

Administrazio kontratazioari buruz, txostenak dio ez direla bete publizitatearen eta lehiaren oinarriko printzipioak, 6 kontraturen esleipenetan. Beste 4 kontratutan, saihestu egin dira Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bateginak ezarritako kontratatze prozedurak.



Kontu orokorrari buruz, HKEEk aldeko iritzia eman du, aurkezpenari eta edukiari dagokienez, bi salbuespen hauek eginda: bata, ibilgetuko elementuen inbentarioa ez duelako; bestea, ezin izan duelako iritzia eman egoera balantzeko finantza ibilgetuaren saldoaren arazoikotasunari buruz, eta Udalaren aurrekontu eta ondare kontabilitateari eragiten dioten hainbat doikuntzari buruz.

Gatikako Herri Sustapenak, SA udal enpresaren fiskalizazioaz, HKEEk, aurkitutako lege urratzeak direla kausa, iritzi dio enpresa horrek 2005ean ez duela bete bere ekonomia jarduera arautzen duen legezko araudia. Eta enpresaren urteko kontuez den bezainbatean, salbuespen horien garrantzia aintzat harturik, HKEEk iritzen dio ez dutela ekitaldiko ekonomia jarduera adierazten, ez eta enpresaren ondarearen eta finantza egoeraren irudi zehatza ere.

Era berean, HKEEk hainbat gogoeta egiten du, barne kontroleko sistemaz eta aurrekontuko, kontabilitateko, diru sarreretako, langileriako eta kontratazioko arloetako kudeaketa prozedurez.

Azkenik, Udalaren finantza egoera aztertzen da. Ondorioa da ezen, diru sarrerak handitzen ez baditu, zorpetu egin beharko duela, hurrengo ekitaldietan 2005 ekitaldikoaren antzeko inbertsio mailari eutsi nahi badio.